

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

126/2018 Foru Agindua, apirilaren 13koa, onesten duena Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteentzako laguntzen deialdia, emakumeen kirola babesteko 2018an

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteei dirulaguntzak eman nahi dizkie 2018an, emakumeen kirola babesteko.

Horretarako, nahitaezkoa da berariazko esparru arautzailea ezartzea, emakumeen kirol federatuko jarduerak eta/edo lizentziek bete beharrekoa, eman beharreko dirulaguntzak eman ditzan sailak.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. - Onestea 2018ko dirulaguntzen deialdia; hain zuzen ere, Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteei emakumeen kirola babesteko emango zaizkien dirulaguntzena. Deialdia, gehienez ere, berrogei mila euroz (40.000 euro) hornituta egongo da. Hori dena, 2015eko urriaren 21eko ALHAOn (123. zenbakia) argitaratutako Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera arautuko da, zeinaren bidez onartu ziren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri orokor arautzaileak, eta foru agindu honen eranskinean jasotako berariazko oinarrien arabera ere arautuko da.

Bigarrena. - Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastu aurrekontuaren 70.1.06.77.00.481.00.10 ("Emakumeen kirolari laguntza ematea") partidaren kontura egingo da; lerroa: 70-0.121; xedapen erreferentzia: 105/1491.

Hirugarrena. - Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu behar dute.

Laugarrena. - Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 13a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Foru aginduaren eranskina

Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia, emakumeen kirola babesteko 2018an

Lehenengoa. Helburua eta xedea

Deialdiaren xedea da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea, Arabako kirol federazioei atxikita dauden kirol klub eta elkarteak diruz laguntzeko, 2018an emakumeen kirola garatzen lagun dezaten, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, xedatutakoaren esparruan.

Bigarrena. Aurrekontuei egozte

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da izan inoiz ere helburu horretara bideratu den zuzkidura baino gehiago, hau da, 40.000,00 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastu aurrekontuko "Emakumeen Kirolari Laguntza ematea" izeneko 70.1.06.77.00.481.00.10 partidaren kontura ordainduko da.

Dagoen zenbatekoa honela banatuko da:

A) 10.000,00. euro "Emakumeak kirola egin dezala sustatzea"ri.

B) 30.000,00. euro "Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea"ri.

a) eta b) ataletako proiektuei emateko dirulaguntzak kalkulatu eta gero horietakoren batean soberakina badago, balioespen batzordeak proposatu ahal izango du soberakin hori beste atalera bideratzea.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak

Onuradun izango dira Arabako kirol federazioei atxikitako kirol klub eta elkarteak.

Ez dira onuradun izango ez Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, hirugarren oinarrian jasotako baztertze egoeretan dauden erakundeak ez Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, araututako egoeraren batean daudenak.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta dirulaguntzen zenbatekoak programa bakoitzerako

Dirulaguntza eskuratu ahal izango dute ondoren adieraziko diren programek. Hona programa horiek eta bakoitzari esleituko zaizkion zenbatekoak:

A) Emakumeak kirola egin dezala sustatzea

Erakunde eskatzaileek solasaldiak, hitzaldiak eta antzeko jarduerak egin beharko dituzte, emakumeen kirola sustatzeko Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Konderriko erakundeetako kideen artean.

Ekitaldi horiek bereziki emakumeen kirol hastapenerako eta fidelizatorako izan behar dute, eta ez dute loturarik izan behar lehendik dauden eskola kiroleko, eskolako jarduera fisikoko, eskolaz kanpoko jarduera fisikoko, entrenamenduetako eta erakunde eskatzaileek antolatutako lehiaketa federatuetako programekin.

Proposamenak 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era (bi egun horiek barne) bitartean gauzatu behar dira, eta proposamen bakoitzak gutxienez ordubeteko jarduera izan behar du, eta horri kirola egiteko denbora gehiago gehitu dakioko, edo, jardueraren osagarri, emakumeak kirolean aritzea sustatzen duten elementuak eman edo banatu daitezke (emakumezko jokalarien

argazki eskainiak, posterrak, horma irudiak, emakumezkoen kirol lehiaketetarako sarrerak eta antzeko jarduerak).

Ez dira onartuko erakunde eskatzaileetako bazkideentzat bakarrik diren jarduerak.

Kanpo geratzen dira lehiaketak, bai ofizialak bai lagunarteko jarduerak edo topaketak, "Andra Maria Zuria" sariak, "San Prudentzio" sariak, eta antzekoak, bai eta kirol klub eta elkarten barruko jarduerak ere.

Horrez gain, kanpo geratzen dira jarduerak, zeinentzat dirulaguntzen beste deialdi batzuetan Euskara, Kultura eta Kirol Sailari dirulaguntza eskatu zaion.

B) Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea

Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea, lizentzia kopuruaren arabera, beren diskriminazio positiboari laguntzeko.

Dirulaguntza jaso dezakete kirol klub eta elkarteek dituzten emakumeentzako federazio lizentziek (jokalari, entrenatzaile eta delegatuak), kasuan kasuko euskal federazioak 2017an emandakoak. Euskal federaziorik ez badago, kasuan kasuko Espainiako federazioak emandakoak izango dira aplikagarri.

"Izapidetutako eta/edo emandako" federazio lizentzien barruan multzo hauek bereizten dira:

1. maila. Atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, txirrindularitza, kirol egokituak, futbola, gimnastika, hockey-a, euskal kirol eta jokoak, igeriketa, euskal pilota, errugbia, mahai tenisa eta boleibola.

2. maila. Xakea, badmintona, eskrima, halterofilia, judoa, karatea, borroka, padela, patinajea, squash-a, taekwondo-a, tenisa, arku tiroa eta triatloia.

3. maila. Urpeko jarduerak, automobilismoa, beisbola, billarra, bola jokoa, boxeoa, ehiza, aire kirolak, negu kirolak, uretako eskia eta motonautika, golfa, hipika, mendia motoziklismoa petanka, piraguismoa, tiro olinpikoa eta bela.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

Kirol klub edo elkarteek eskaera bana baino ezin izango dute aurkeztu A) eta B) ataletan.

Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzenduta bidali behar dira, I. eranskinean ("A" atalarentzat) eta III. eranskinean ("B" atalarentzat) argitaratzen diren ereduaren arabera.

Atal hauen kasuan:

A) "Emakumeak kirola egin dezala sustatzea"

Emakumeak kirola egin dezala sustatzeko egiten diren jarduerak 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean; dirulaguntza eskaera inprimaki normalizatuan aurkeztuko da (I. eranskina), orrialde eta atal guztiak behar bezala beteta. Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Erakunde eskatzaileak: hitzaldiak ematera zenbat erakundetara joan den, horrenbeste ziurtagiri.

- 2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean egitea aurreikusi diren eta/edo egin diren solasaldi/hitzaldien kopurua.

- Eskaera bakarra egin daiteke, eta han jaso behar dira aurreikusitako ekitaldi guztiak.

B) Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea.

B atalean, dirulaguntza eskaera inprimaki normalizatuan aurkeztuko da (III. eranskina), orrialde eta atal guztiak behar bezala beteta. Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Kasuan kasuko Arabako federazioaren egiaztatzea:

2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean emakumeentzat izapidetutako/emandako Arabako lizentzia kopurua adieraziko da (kirolarienak eta entrenatzaile eta delegatuenak). Ez dira jaso behar lizentzia independenteak edo eskaera egiten duen kirol klub eta elkarteak ez direnak.

Seigarrena. Aurkezteko epea

A atalerako ("Emakumeak kirola egin dezala sustatzea") eskaerak aurkezteko epea 2018ko uztailearen 2an hasiko da eta uztailearen 27an amaituko da.

B atalerako eskaerak aurkezteko hogeitun egun natural izango dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

Laugarren oinarrian zehaztutako programa bakoitzeko zenbatekoak finkatzeko, irizpide orokor eta zehatz hauek hartuko dira kontuan:

A) Emakumeak kirola egin dezala sustatzea.

1. Atal honetarako gorago aipatutako aldiaren barruan egindako jarduera bakoitzeko, gehienez ere, 150,00 euroko dirulaguntza emango da.

2. A atalerako dirulaguntzak kalkulatzeko, aurkeztutako ekintza guztien batura kalkulatu da, haietako bakoitzerako, gehienez ere, 150,00 euroko dirulaguntza emango delarik.

Proposatutako dirulaguntzen batura eskueran den aurrekontu esleipena baino gehiago bada, proportzionalki banatuko da.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ezin dira sartu dirulaguntzaren xede diren gastuetan.

Onuradunek jarduera diruz lagunduak azpikontratatzea (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzena, 27. artikulua), ez da berariaz baimentzen oinarri hauetan aipatzen diren dirulaguntzetarako.

2018ari buruz emandako datuen arabera aplikatuko dira dirulaguntzak, eta ezin daitezke inoiz ere argudio izan beste urte batzuetan eskatu ahal izateko.

Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

Eskatzaileak soldatapeko langilerik baldin badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 eta 12.3 artikuluetan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egiaztatzeak aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharre dagokienez, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztatzea egitea, Foru Ogasunaren bidez.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ezin dira sartu dirulaguntzaren xede diren gastuetan.

B) Emakumeen kirol federatuari laguntza ematea:

Kirol klub edo elkarte bakoitzari emango zaion laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko zatiketa egingo da bigarren oinarriko b) atalean jasotako zenbatekoaren eta eskaera guztiek lortutako puntu guztien artean.

Zatiketa horren bitartez, puntuak zer balio duen aterako dugu, eta ondoren balio hori bider kirol klub edo elkarte eskatzaile bakoitzaren puntuak eginez gero, bakoitzari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa aterako dugu.

Taula hau aplikatuko da:

2017ko abenduaren 31n emanda dauden federazio lizentzien kopuruagatik:

LIZENTZIEN KATEGORIA	LIZENTZIEN ARABERAKO PUNTUAK
1. mailan emandako emakumeentzako federazio lizentzien kopurua, guztira	15
2. mailan emandako emakumeentzako federazio lizentzien kopurua, guztira	5
3. mailan emandako emakumeentzako federazio lizentzien kopurua, guztira	1

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak Balioespen Batzordeak aztertuko ditu. Balioespen Batzorde horren burua Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Balioespen Batzordeak txosten bat egingo du, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun hurrenkera zehaztuko dira, hala badagokio.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu behar dute.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

Bederatzigarrena. Emandako dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea

1) Emakumeak kirola egin dezala sustatzea

Laugarren oinarriaren "Emakumeak kirola egin dezala sustatzea" A) atalean jasoriko dirulaguntzen bidez lagundutako jarduera bukatu (2018ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean egin behar dira) eta justifikazioa aurkeztu ondoren (2018ko uztailaren 2tik 27ra da horretarako epea) ordainduko dira dirulaguntzak.

Edonola ere, hauexek jaso beharko dira:

A) Eskaeraren inprimaki normalizatua (l. eranskina), behar bezala beteta, eta jatorrizko egiaztagiriak, zeinak dirulaguntza eskaeraren xede izan diren ekitaldiak zein erakundetan egin diren, erakunde horiek emango baitituzte.

2) Laugarren oinarriaren B) ataleko dirulaguntzak kasuan kasuko ebazpena onartu ondoren ordainduko dira.

Hamargarrena. Bateriaezintasunak


Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetan emandako dirulaguntza, laugarren oinarriaren A) atalean jasotakoa, bateraezina izango da Arabako Foru Aldundiaren beste sail batzuetatik edo haiei atxikitako erakundeetatik jasotako dirulaguntzekin, nola eta ez dituzten baimendu bi erakundeek batera.

Deialdi honetan emandako dirulaguntza, laugarren oinarriaren B) atalean jasotakoa, bateragarria izango da foru aldundiko beste sail batzuetatik edo haiei atxikitako erakundeetatik jasotako laguntza ekonomiko edo dirulaguntzekin.

Hamaikagarrena. Publizitatea

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian www.araba.eus egongo da ikusgai, Herritarrentzako zerbitzuak / Laguntzak eta dirulaguntzak izeneko atalean.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>2018</p> <p>Eskabidea ■ Solicitud</p> <p>Emakumeen kirola sustatzeko Fomento del deporte femenino</p>
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

ASUN	
-------------	--

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾


Identifikazio agiria ■ Documento identificativo		Identifikazio zk. ■ N° identificativo				
<input checked="" type="checkbox"/> IKZ ■ CIF						
Sozietatearen izena ■ Razón social						
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)		Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herraldea ■ Pais	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio		Herría ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico						
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax				

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾
(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)		Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herraldea ■ Pais	Probintzia ■ Provincia	Udalerría ■ Municipio		Herría ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL
(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo		Identifikazio zk. ■ N° identificativo		Sexua ■ Sexo	
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro		<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena ■ Nombre		Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico					
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax			

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2018 Eskabidea ■ Solicitud Emakumeen kirola sustatzeko Fomento del deporte femenino
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

**ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD**

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	
NAN ■ DNI	
Entitatea ■ Entidad	
IFK ■ CIF	
Kargua ■ Cargo	


.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma _____

(zigilua ■ Sello)

<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(AURREKO ALDEAN)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(ANVERSO)</p>	<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(ATZEKO ALDEAN)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(REVERSO)</p>
--	---

Orria ■ Hoja 2/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	2018
	Eskabidea ■ Solicitud Emakumeen kirola sustatzeko Fomento del deporte femenino

Euskara, Kultura
eta Kirol SailaDepartamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I


BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS⁽³⁾

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■	Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■
<i>Conforme entidad financiera (firma y sello)</i>	<i>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</i>
.....(e)ko.....aren.....(e)an(e)ko.....aren.....(e)an
En....., a..... de..... de.....	En....., a..... de..... de.....
<p>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan</p> <p>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

Orria ■ Hoja 3/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p style="text-align: right;">2018</p> <p>Eskabidea ■ Solicitud</p> <p>Emakumeen kirola sustatzeko Fomento del deporte femenino</p>
--	---

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I


JARDUEREI BURUZKO DATUAK ■ DATOS DE LAS ACTIVIDADES

Jarduera nagusiaren deskribapena
Descripción de la actividad principal

Jarduera praktikoaren deskribapena
Descripción de la actividad práctica

Emandako materiala / dokumentazioa
Material / documentación entregada

Orria ■ Hoja 4/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p style="text-align: right;">2018</p> <p>Eskabidea ■ Solicitud</p> <p>Emakumeen kirola sustatzeko Fomento del deporte femenino</p>
--	---

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte


I. ERANSKINA ■ ANEXO I

Egindako jarduerak / Actuaciones realizadas		
Data Fecha	Erakundea Entidad	Emakumezko parte- hartzaien kopurua Nº participantes femeninos

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante

Orria ■ Hoja 5/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Eskabidea ■ Solicitud</p>	2018
	<p>Emakumeen kirola sustatzeko Fomento del deporte femenino</p>	

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

ZIURTAGIRIA ■ Certificado

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	
NAN ■ DNI	
Entitatea ■ Entidad	
IFK ■ CIF	
Kargua ■ Cargo	

Ziurtatzen du / Certifica que:

Kluba Club	
----------------------	--

_____ **jardun egin dituela emakumeen kirola sustatzeko /**
Ha realizado _____ actuaciones de Fomento del Deporte femenino

(*Tokia eta data ■ Lugar y fecha*)

Ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona representante

--

Orria ■ Hoja 6/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p style="text-align: right;">2018</p> <p>Eskabidea ■ Solicitud</p> <p>Emakumeen kirola sustatzeko Fomento del deporte femenino</p>
--	---

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

Oharra (1)

izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bezela, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakarrez helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduratan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia bezela, honako hau ADIERAZTEN DUT

LEHENENGOA.

Ez ordezkatzeko dudako elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela sexua dela eta inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.

Ez ordezkatzeko dudako elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezein kidek ez duela zigorririk izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor baztertzeko, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Nota (1)

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 VitoriaGasteiz (Álava).

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente

Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Nota (4)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:


PRIMERO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

SEGUNDO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

Orria ■ Hoja 7/7

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	2018 Eskabidea ■ Solicitud Emakumeen kirol federaturako laguntza Apoyo al Deporte femenino federado
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol SailaDepartamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

ASUN

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 IKZ ■ CIF

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sozietatearen izena ■ Razón social

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herria ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

 NAN

DNI

 AIZ

NIE

 Besteren bat

Otro

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

 Emakumea

Mujer

 Gizona

Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido


Bigarren abizena ■ Segundo apellido

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>2018</p> <p>Eskabidea ■ Solicitud</p> <p>Emakumeen kirol federaturako laguntza Apoyo al Deporte femenino federado</p>
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	
NAN ■ DNI	
Entitatea ■ Entidad	
IFK ■ CIF	
Kargua ■ Cargo	


.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma _____

(zigilua ■ Sello)

<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(AURREKO ALDEAN)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(ANVERSO)</p>	<p>Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.</p> <p>(ATZEKO ALDEAN)</p> <p>Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud.</p> <p>(REVERSO)</p>
---	--

Orria ■ Hoja 2/5

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2018
	Eskabidea ■ Solicitud Emakumeen kirol federaturako laguntza Apoyo al Deporte femenino federado

Euskara, Kultura
eta Kirol SailaDepartamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I


BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS ⁽³⁾

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)	Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■ Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada
.....(e)ko.....aren.....(e)an En..... a..... de..... de.....(e)ko.....aren.....(e)an En..... a..... de..... de.....
Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.	ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT: <input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA <input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES: <input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <u>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</u> <input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.

Orria ■ Hoja 3/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	2018
	<p>Eskabidea ■ Solicitud</p> <p>Emakumeen kirol federaturako laguntza Apoyo al Deporte femenino federado</p>

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

Behean sinatzen duen Arabako Federazioak
ZIURTATZEN DU
hemen zehazten den kirol klubak edo
elkarteak honako datu hauek izan dituela
2017an:

La Federación Territorial Alavesa abajo
firmante **CERTIFICA**
Que el club o agrupación deportiva indicada
ha tenido los siguientes datos en el año
2017:

Kirol kluba edo elkartea ■ Club o agrupación deportiva

IFK ■ CIF

--	--

Kirol klub eta elkarreentzako laguntza ■ Ayuda a clubes y agrupaciones deportivas

KONTZEPTUA ■ CONCEPTO	Kop. ■ N°
Izapidetutako eta/edo emandako federazio emakumeen lizentzien kopurua Número total de licencias femeninas federadas tramitadas y/o expedidas 2017	


SINADURA ■
FIRMA

ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA ■
SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA

FEDERAZIOAREN KIROL MODALITATEA _____

FEDERACIÓN ALAVESA DE _____

Orria ■ Hoja 4/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>2018</p> <p>Eskabidea ■ Solicitud</p> <p>Emakumeen kirol federaturako laguntza Apoyo al Deporte femenino federado</p>
--	---

Euskara, Kultura
eta Kirol Saila

Departamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

Oharra (1)

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bezela, jakinarazten dizugu zure datuak Aldundi honen fitxategietan jasoko direla. Fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Erregistroan inskribatuta daude eta horren eskumeneko eginkizunak gauzatzeko egoki diren segurtasun neurriak dituzte. Datu horiek ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuen kontra egiteko, datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, P. K. 01001 Gasteiz, Araba).

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoa bakarren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeko utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatuko edo komunikatuko, baldin eta lehenago egindako ordainketen ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei.

Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT

LEHENENGOA.

Ez ordezkatzeko dudarik edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela sexua dela eta inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.

Ez ordezkatzeko dudarik edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela zigorrik izan, ez arlo penalean ez administratiboan, sexua dela eta inor baztertzeko, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloan xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteak eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Nota (1)

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos de que sus datos se incluirán en ficheros de esta Diputación, inscritos en la Agencia Vasca de Protección de Datos y que cuentan con las medidas de seguridad adecuadas para la realización de funciones de su competencia. No serán comunicados a otras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Podrá ejercitar los derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación en la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5. C. P. 01001 VitoriaGasteiz (Álava).

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Nota (4)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

SEGUNDO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.